

## **OHIKO UDALBATZARRA**

Errezilgo Udaletxeko Pleno Aretoan, 2011ko maiatzaren bosteko gaueko bederatziak eta hamabost minutu direnean, bildu dira, ohiko Udalbatzarra egiteko ondoko Korporatiboak:

Iñaki Oiartzabal Zinkunegi-Alkate Lehendakaria

Joseba Iñaki Labaka Beristain-Zinegotzia.

Luis Berrondo Lanceta-Zinegotzia.

Bittor Astigarraga Zugasti, Zinegotzia.

Jose Luis Albisua Lasa, Zinegotzia ez da etorri.

Luis Arzallus Amenabar, Zinegotzia ez da etorri.

Josune Arruti Eizagirre Zinegotzia, ez da etorri.

Idazkari lanetan, Maria Etxeberria Urretabizkaia Udaletxeko Bitarteko Idazkari Kontuhartzailea.

Alkateak hasera eman dio bilkura honi ondoko gai zerrendaren arabera:

### **LEHENENGO PUNTUA:**

#### **2011KO APIRILAREN 7KO AKTAREN ONARPENA, BIDEZKOA BADA.**

Alkateak 2.011ko apirilaren 7ko aktaren berri ematen du eta zinegotziek aho batez onartzen dute.

### **BIGARREN PUNTUA:**

#### **2.010EKO KONTU OROKORRAREN ONARPENA, BIDEZKOA BADA.**

Idazkariak aipatzen du Kontuen Batzorde Bereziak bere oniritzia eman diola 2010eko Kontu Orokorrari eta indarrean dagoen legediak ezarritakoa beteaz, jendaurreko erakusketan jarri eta alegaziorik izan ez denez, Kontu Orokorra onartzeko moduan dagoela.

Bozketa egin eta Batzordearen proposamena aztertu ondoren, onartu dute ondoko ondorioekin:

1. Aldeko botoak Iñaki Oiartzabal Zinkunegi, Joseba Iñaki Labaka Beristain, Bittor Astigarraga Zugasti eta Luis Berrondo Lanceta.
2. Aurkako botoak: ez dago.
3. Abstentzioak: ez dago.

Beraz, 2010eko Kontu Orokorra onartuta geratzen da.

**HIRUGARREN PUNTUA:**

**JOXE AIERTZA OTAEGI JAUNAREKIN SINATU BEHARREKO ESKRITURAK.**

Alkateak jakinerazten du 2011ko aurrekontua onartu gabe dagoenez, terrenoen erosketa ezin dala gauzatu eta beraz, gaia oraingoz mahai gainean geratzen dala.

**LAUGARREN PUNTUA:**

**ORDAINAGIRIEN ONARPENA.**

Ez dago ordainagiririk.

**BOSTGARREN PUNTUA:**

**ALKATETZA BERRIAK ETA EBAZPENAK.**

Alkateak azkeneko Plenotik gaurko data arte emandako Dekretuen zerrenda jakinarazten du, hau da, 2011ko apirilaren 11tik (42/2011 Alkatetza Ebazpena) maiatzaren 5era (61/2011 Alkatetza Ebazpena) bitarteko Dekretuak.

**SEIGARREN PUNTUA:**

**GALDERAK ETA ERREGUAK.**

1.- Idazkariak jakinarazten du, legearen arabera Udaletxeko mahaiak osatu baino 3 egun lehenago Plenoa egin behar dela onartu gabeko aktak onartzeko. Beraz, gure kasuan Pleno hau ekainaren 8an izango da.

Beste gairik ez dagoenez, gaueko bederatziak eta hogeita bost minutu direnean, Alkateak amaitutzat eman du udalbatzar hau eta nik, Idazkari gisa, Akta jaso dut.